



PRENTSA OHARRA NOTA DE PRENSA 2017ko Ekainak 6 -

Confebask Unibertsitateen Euskal Kontseiluan sartu da, Iñigo Urkullu lehendakariak presiditutako bilera batean, Unibertsitate-Enpresa harremanak sustatzeko

- Bileran, **lehendakariak** '2017-2020 Unibertsitate-Enpresa Euskal Estrategia' aurkeztu du, eta Administrazioa, Unibertsitateak eta **Confebask** izango dira bertako eragile nabarmenak

2017-06-06

Confebaskek aukera aprobetxatu du **lehen aldiz Unibertsitateen Euskal Kontseiluan** parte hartu ahal izateko egitasmoagatik eskerrak emateko eta bere balioa agerian jartzeko, eta bere burua eskaini du elkarrekin lan egiteko, **euskal unibertsitate sistema hobetzeko, gaur lehendakariak aurkeztu duen '2017-2020 Unibertsitate-Enpresa Euskal Estrategia'-ren barruan.**

Hezkuntza Sailak, Euskal Unibertsitate sistemako hiru unibertsitateek eta **Confebaskek** jardun dute Unibertsitate-Enpresa **lehen euskal estrategia** hau lantzen, 2017-2020ko denbora horizontearekin, bi **helburu nagusirekin: ezagutza eta ikerketa** transferitzea **enpresaren arloan** aplikatzeko, eta, horrez gain, giza kapitala **prestatzea, euskal enpresen** beharretara egokituta.

Gainera, beste ekintza batzuen artean, Estrategiak jasotzen dituen helburuetako bat **'unibertsitate duala'** progresiboki ezartzea da, konbentziturik etorkizunera begira ezinbestekoa dela **enpresen eta hezkuntza sistemaren** arteko harremanak sendotzea eta elkar ulertzea hobetzea.

Ildo horretan, estrategiak **berariaz** jasotzen du **prestakuntza eta ikasketa** programa bat abiaraztea, unibertsitateko ikasleentzat, **Europako enpreetan, Confebasken** lankidetzarekin.

Hain zuzen ere, lankidetza hori irmotasunez bultzatzeko moduari buruzko **gaurkotasun handiko eztabaida** horretara gonbidatu dute **Confebask, Unibertsitateen Euskal Kontseiluko** parte izan dadin, Euskadiko LHarekin jada gertatzen den bezala –non ikasleek eta enpresek elkar hartuta **ikerketa, prestakuntza eta esperientzia** partekatzen dituzten– ; unibertsitateen organo instituzionalean euskal administrazioek eta unibertsitateek hartzen dute parte dagoeneko.

Gaurko bileran formalizatu da ofizialki **Confebasken** sarrera, **Urkullu lehendakariak** eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu **Cristina Uriartek** presidituta. **Confebaskeko** lehendakari **Roberto Larrañagaren** ondoan izan dira **Eduardo Aretxaga** zuzendari nagusia eta **Asier Aloria** Prestakuntzako zuzendaria.